

Garizuma

Antton Izagirre

Amaitu dira ihauteak, heldu da garizuma. Mozorroa kentzeko garaia. Gogoeta aroa. Euskal politikak ere abiatu du bere garizuma propioa.

Azken egun hauetan Kutxabanken auziak, aginte politiko eta ekonomikoek, euskal politikagintza ihaute etengabea murgilduta mantendu duten susmoa piztu da. Akordio ezkutuak, idatzi gabe-ko legeak, mesedezko tratuak, eroske-riak... mozorrotuta iraunarazi dituzte ur-tetan. Salaketa politikoak ez dira eraginkorrak izan ezkutuko tramak argi-tzen hasteko. Ezustean, Mario Fernande-

zen isilpeko kontu batek atea zabaldu die ustezko susmo haiei guztiei. Cabiece-si emaniko faborezko tratuak agerian utzi du erakunde ekonomiko eta politi-koetan bakar batzuek izan duten erruga-betasuna eta agintea nahieran erabiltze-ko askatasuna.

Susmopean jarritako politikariek au-zia salbuespen moduko akats edo oke-rreko gertakaritzat hartu nahi izan dute, baina gizartean sortu duen oihartzun eta alarmak gertakari bat ez baino ohiko portaera baten adierazle den ustea area-gotu egin dute. Beste modu batean esan-da, zer ez ote dute gordetzen idatzi gabe-

ko akordio ezkutu horiek Kutxabanken aginte organo gorenetan botere kuotak banatu eta elkar babesteko? Nola ordain-du ote dituzte elkar babesteko egindako mesede horiek? Hari muturra besterik ez ote?

Begi bistakoa da kanpoko kontrol estu-rik gabe eraman izan den Kutxabanken gestioa elite talde baten eta pertsona ba-kar baten ahalmen eta nahieran ibili de-la, gizarte eragileen egitekoa mozorro-tua izan den bitartean. Garaia da erantzukizun politikoak dituztenak ere mozorro iraunkorra galtzen has daite-zen. Ken diezaiegun mozorroa. •

Euriaren kristal hots amaiezina

Naiara Garzia

Pablo Neruda (1904-1973) idazlea bere haurtzaroari buruz mintzatu zenean bere herriko teilatueta euriak erortzean egiten zuen soi-nua aipatu zuen. “Confieso que he vivido” liburuan bere bizitzari buruz aipatzen duen lehenengo gauza da euria: «Lehenik eta behin esanen dut, nire haurtzaroaren egun eta urteei buruz, pertsonaia ahazte-zin bakarria euria izan zela».

Munduan zehar asko bidaiatu zuen arren, bere lana zela eta (kontsula izan zen), bere haurtzaroa eta aberriaz mintza-

tzean teilatueta orratzak bailiran eror-tzen ziren euri tanta horiek aipatu zituen eta euria aberriarekin lotu zuen.

Gabriel Garcia Marquez (1927-1914) idazle kolonbiarrak ere euri hori erabili zuen bere liburu ezagunenetarikoa, “Cien años de soledad” delakoan, izan ere, berak sortutako alegiazko espazio horrek, Macondok, 40 urte inguru ematen baititu euripean, betiereko erauntsi baten men-pe. Eta muturreko egoerak gustuko ditue-nez, beste ipuin batean desertuko lehor gogorrera ohituta dauden protagonistek

(Erendirak eta amonak) bat-bateko zapa-rrada batean ikusten dute beraien burua, goitik behera edo behetik gora ari duen jakin gabe, itsasotik kanpo arrainek berez ez dagokien espazioa zeharkatzen duten bitartean.

Errealitatera eta Euskal Herrira itzuliz, gure oroitzapenenetatik euria deserrira-tzea ezinezkoa litzaiguke, nahiz eta eten-gabe ari duenean bisitari arrotz bat bezala ikusi, eta eguzkia ere hagitz estimatua eta beharrezkoa izan animoarentzat eta gor-putzaren goxotasunarentzat. •